



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 4a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (3. or.).
- Galdera, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (3. or.).
- Galdera, jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean, Ana Figueras Castellano andreak egina (4. or.).
- Galdera, jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua, Ana Figueras Castellano andreak egina (5. or.).
- Galdera, Lekarozeko ikastetxea dela-eta Nafarroako Gobernuak duen aurreikuspenari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (5. or.).
- Galdera, jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko, María Chivite Navascués andreak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan, María Chivite Navascués andreak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsoneri buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Grupo Gestión Social enpresak kudeatzen dituen udal zahar-etxeei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Irunberriko zahar etxea handitzearen kostuari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxeetan, Ana Figueras Castellano andreak egina (9. or.).
- Galdera, Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (10. or.).

- Galdera, Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspeni buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako simaurtegiei buruzko plan bat egiteko asmorik ote duen jakiteko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, eremu mistoko errepideetako seinaleak ele bitan jartzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (14. or.).
- Galdera, Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomasosi erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentarietara bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak 2008ko ekitaldirako (16. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2008ko ekitaldirako (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2008ko ekitaldirako (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2008ko ekitaldirako (18. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako 2008. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2007ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda. (18. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruzkoa.*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gazteen sexualitatearen gaineko laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Gazteen sexualitatearen arloko laguntzari buruzko galdera.

• Gazteek beharizanak dituzte metodo anti-kontzeptiboei, sexu-transmisiozko gaixotasunen gaineko informazioari, hezkuntza eta sentsibilizazio planei eta, finean, haien sexualitatearen arloko laguntzari dagokienez. Zer neurri ari dira hartzen sexu-hezkuntzaren alorreko arreta integrala emateko eta beharizan horiei erantzuteko?

• Ba al dago arlo horri buruzko zentro berezirik 10etik 24 urtera bitarteko gazteentzat?

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruzkoa.*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan

1. Zer espezialitatek egiten dituzte bertan egon beharreko gaueko eta jaieguneako guardiak Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzean?

2. Zer espezialitatek egiten dituzte gaueko eta jaieguneako guardia lokalizatuak Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzean?

3. Ospitale bakoitzean artatzen diren espezialitateen artean, zeinek ez du inolako guardiarik?

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea, hitzarmenak albo batera utzita, badagoen inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera

hau egin du, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak baditu gaur egun hitzarmenak foru erkidegoko zenbait ospitale pribaturekin.

Hitzarmenak albo batera utzita, ba al dago inolako itunik edo programarik Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren eta foru erkidegoan lan egiten duten klinika pribatuen artean?

Halako itun eta programak baldin badaude, zeintzuk dira horiek? Zein da horien funtsa? Zer zerbitzu mota ematen dute?

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren eta foru erkidegoko ospitale pribatuen arteko hitzarmenek 2007an zenbat diru jarri beharra ekarri duten jakin nahi dut.

Zein izan da zentro pribatuek emandako laguntzen kopurua? Zein espezialitate klinikokoak izan dira?

Zein izan da Nafarroako Gobernuak itunpeko zentro pribatuei ordaindutako ebakuntza eta kontsulta bakoitzaren kostua?

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein fasetan dagoen Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Ospitaleko D pabiloiaren eraberritzea 2007tik 2010era bitarte egitea aurreikusten da; horretarako gastu aurreikuspena 30 milioi eurokoa da.

Obra horrek, batetik barne medikuntzako unitatearen -onkologia eta hematologia- ahalmena handitzea ekarriko du. Bestetik, hor dago Zainketa Intentsiboetako Unitatean ohe gehiago paratzea, barne medikuntzan 14 gela bikoitz eta beste 14 banako gela, eta onkologian 26 banako eta 6 bikoitz.

Une hauetan, ondokoei buruzko informazio guztia jaso nahi dugu:

Zein fasetan dago Nafarroako Ospitaleko C pabiloia eraberritzeko proiektua?

Aurreikusitako epearekiko atzerapenik gertatzen ari al da obran?

Zer gastu aurreikusten da 2008rako?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Lekarozeko ikastetxea dela-eta Nafarroako Gobernuak duen aurreikuspenari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozeko ikastetxea dela-eta Nafarroako Gobernuak duen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, Lekarozeko ikastetxea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zein da Nafarroako Gobernuak duen plangintza Lekarozeko ikastetxearekin? Zer eginen du 2008. urtean? Zer eginen du ikastetxea gehiago honda ez dadin?

Iruñean, 2008ko ilbeltzaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzordeko kide izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun eta Kontsumo Ministerioak iragarri zuenez, iragan abenduaren 21ean eman zen eza-gutzera nork osatuko duten Espainiako Bioetika Batzordea. Batzorde horren sorrera ikerkuntza biomedikoari buruzko legeak ezarri zuen -legea iragan uztailean sartu zen indarrean-, kontsultarako organo kolegiatu eta independente gisa, biomedikuntzaren eta osasun zientzien inplikazio etiko eta sozialekin zerikusia duten auzi guztietarako.

Batzordeko hamabi kideak Osasun eta Kontsumo Ministerioak izendatu ditu, autonomia erkidegoek eta Estatuko administrazio orokorrak proposatuta.

Horra galdera:

Nor proposatu zuen edo/eta nori eman zion botoa Nafarroako Osasun kontseilariak Espainiako Bioetika Batzorde horretako kide izateko?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publikoko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat ekintza mediko edo laguntza egin den 2007ko hilabete bakoitzean Nafarroako osasun sare publiko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zenbat ekintza mediko edo laguntza egin da 2007ko hilabete bakoitzean, Nafarroako osasun sare publiko ospitale bakoitzeko larrialdi zerbitzuetan?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroan gizarte gaietako sektorean lan egiten duten pertsonei buruzko galdera

1. Zenbat pertsonak lan egiten dute Nafarroan gizarte gaietako sektorean?

2. Biztanleria aktibo osoaren zer ehuneko egiten dute pertsona horiek?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Gobernuak ba al duen asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion

Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Ribaforada eta NA-232 errepidea lotzeko bi biribilgune eraikitze obrak orain dela bi urte inguru bukatu ziren, baina argiztatu gabe jarraitzen dute (farolak jarrita daude), bai eta txukundu gabe ere; ondorioz, argi faltak eta txukundu gabe egoteak Ribaforadarako sarbide horri ematen dion irudi txarrak arriskutsuagoa bihurtzen du gune hori.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak hau erantzutea nahi dugu:

Gobernuak ba al du asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatu eta txukuntzeko?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Grupo Gestión Social enpresak kudeatzen dituen udal zahar-etxeei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Grupo Gestión Social enpresak kudeatzen dituen udal zahar-etxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Enpresa pribatuek kudeatzen dituzten udal zahar-etxeei buruzko galdera

Udalen zer zahar-etxe kudeatzen ditu Grupo Gestión Social enpresak?

Zenbat egoitza-plaza zituen zahar-etxe horietako bakoitzak aipatu enpresa horrek haien gaineko ardura hartu baino lehen? Zenbat dituzte orain?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Irunberriko zahar etxea handitzearen kostuari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Irunberriko zahar etxea handitzearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Irunberriko zahar-etxea handitzeari buruzko galdera

Irunberriko zahar-etxea 2002an inauguratu zen. Zein izan da hura handitzeko eta hornitzeko obraren kostua?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxeetan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ikasleen ehuneko zenbat egiten duten ikasle etorkin matrikulatuek Nafarroako ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Aurreikuspenen arabera, ikasleen ehuneko zenbat egiten dute etorkinek 2007-2008 ikasturtean Nafarroako ikastetxeetan, hala publikoetan nola itunduetan?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Cadreita eta Viana bitartean garatzen ari diren edo garatu nahi diren industrialdeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERARENTESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zer industrialde ari dira garatzen edo garatu nahi dira NA-134an Cadreitatik Vianaraino?

– Jarduketa edo aurreikuspen horien arabera, zenbat metro koadro dira udal bakoitzean?

– Zenbateko laguntzak jaso edo jasoko ditu industrialde horietako bakoitzak Nafarroako Gobernuarengandik?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Aresoko udalerrian Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean dagoen informazio-panela euskaraz ez jartzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak gaztelania hutsezko informazio-panel bat jarri zuen Aresoko udalerrian, Leitzatik Iruñerako A-15 autobiarene sarbidean.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Zein arrazoi daude informazio-panel hori euskaraz ez jartzeko?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspeni buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, NA-4150 errepidea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena, hobetzeko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, Nafarroako Gobernuak ez du aintzat hartu NA-4150 errepidea hobetzea, N-170 errepidean hasi eta Leitzako gainean amaitzen dena.

Errepide horren egoera txarra kontuan izanik, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

Errepide horretan zer hobekuntza egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako simaurtegiei buruzko plan bat egiteko asmorik ote duen jakiteko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako simaurtegiei buruzko plan bat egiteko asmorik ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Agoizko Udaleko alkateak, 2007ko urriaren 22an emandako ebazpen baten bidez, obra lizentzia eman zion Itoitz-Canal de Navarra fundazioari, Gendulainen hegazti harrapari sarraskijaleentzako elikadura osagarriko puntu bat ezar dezan.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Ingurumen Departamentuak egin al du simaurtegi horri buruzko txostenik? Egin baldin badu, horren kopia jaso nahi dugu.

Nafarroako Gobernuak ba al du Nafarroako simaurtegiei buruzko plan bat egiteko asmorik?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, eremu mistoko errepideetako seinaleak ele bitan jartzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, eremu mistoko errepideetako seinaleak ele bitan jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak idatziz erantzun dezan.

Eremu mistoko errepideetako seinaleak ele bitan jartzeari buruzko galdera

Nafarroako Auzitegi Nagusiko apirilaren 10eko 189/2007 epaiak azaldu zuenez, Zizur Nagusia herriaren izena adierazten duten trafiko seinaleetan, Zizur Mayor gaztelaniazko izenaz gain, euskarazko izen ofizialak ere agertu beharko du. Hori horrela, zer irizpide orokor erabiliko du Nafarroako Gobernuak eremu mistoko trafiko seinaleei buruz?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Erriberako zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Batzordean Nafarroako 2008ko aurrekontuak eztabaidatu ondotik, bi zuzenketa onetsi dira, Erriberako profesionalek, gaixoek eta senideek luza-roan egindako bi eskaerarekin zerikusia dutenak.

Zuzenketa horiek zainketa aringarrien unitateari eta unitate psikiatrikoari buruzkoak dira.

Ezker Batuaren ustez, bi unitate horiek Tuterako Ospitalearen menpe egon beharko lirateke. Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

Zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak bi unitate horiez arduratzeko behar diren langileei buruz?

Noren menpe egonen dira bi unitate horiek?

Non kokatuko dira unitate horiek?

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpe egonen dira zuzen-zuzenean?

Osasun Departamentuaren aurreikuspenen arabera, noiz hasiko dira zerbitzu ematen bi unitate horiek Erriberan?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Talde Sozialistari jakitera eman diotenez, Eriaren Arazoetarako Atala ez da betetzen ari gaixoen eskaera, kexa edo/eta erreklamazioei erantzuteko epeak.

Horra galdera:

Zer ari da gertatzen Bideko Ama Birjina Ospitaleko Eriaren Arazoetarako Atalean izapidetzen diren erreklamazio eta kexekin?

Zergatik ez dira betetzen ari NAOn ezarritako prozedurak agintzen dituen epeak, eman beharreko erantzunei dagokienez?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomasosi erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomasosi erretinianoa duten gaixoen tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Talde Sozialistari jakitera eman diotenez, gaixoak Bartzelonako Begietako Mikrokirurgiako Institutura bidaliz artatu izan du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Von Hippel-Lindau gaixotasuna edo angiomasosi erretinianoa, "gaixotasun arrarotzat" jotzen dena. 2006aren amaieratik aitzina, ordea, gaixotasun hori Nafarroako Osasun Zerbitzuan bertan hasi ziren tratatzen, eta baztertu egin zen gaixoak beste inora bidaltzea.

Horra galdera:

Zein izan da gaixotasuna tratatzeko irizpidea aldatzeko arrazoa? Izan ere, arestian azaldu dudanez, lehen beste zentro batzuetara bidaltzen ziren gaixotasun hori zutenak, eta orain, antza denez, ez.

Jakin badakit Nafarroan "gaixotasun arraro" horren zenbait kasu daudela. Nafarroako Osasun

Zerbitzua kasu horiek guztiak tratatzen ari al da gaur egun, ala horietako batzuk beste zentro batzuetara bidaltzen ari da?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2008ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuruak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15, 35 eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hau ERABAKI DA:

1. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak onestea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak:

– Dietak: 148,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– Dietak: 175,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

Kilometro-ordaina: Kilometro bakoitzeko 0,31 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako ordainsariak:

a) Dirulaguntza finkoa: 7.675,00 euro/hilabete/parlamentu-talde.

b) Dirulaguntza aldakorra: Kontzeptuon baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.387,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa gastuak: 1.060,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 3.958,00 euro/hilabete/parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

2. Bidaia ofizialengatiko ordainen zenbatekoa ezartzea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez: Nafarroatik kanpora eginiko bidaietan, eguneko 105,43 euro, eta atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 166,46 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru parlamentarien ordainsariak 2008ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak foru parlamentarien ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta kontuan hartuz foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan ezarritakoa eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoa, hau ERABAKI DA:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2008. urterako, 59.160,08 eurokoa izanen da.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2008. urterako, 52.020,08 eurokoa izanen da.

3. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2008. urterako, 44.370,06 eurokoa izanen da.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2008. urterako, 39.015,06 eurokoa izanen da.

5. Erabaki honetan adierazitako ordainsarien zenbatekoak gaurkotuko dira, behar izanez gero, 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2008ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2008. urteko ordainsari gordina 77.874,16 eurokoa izatea.

2. Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2008. urteko ordainsari gordina 53.294,92 eurokoa izatea.

3. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2008. urterako:

Lehendakaritzako idazkaria: 34.167,70 euro.

Mahaiko kideen idazkaria: 27.475,70 euro.

Parlamentu-taldeen laguntzaileak: 27.475,70 euro.

4. Erabaki honetan adierazitako ordainsarien zenbatekoak gaurkotuko dira, behar izanez gero, 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

5. Gaurkotzea, behar izanez gero, aldizkako ordainsari finkoaren araubidearen pean dauden eledun titularrek edo eledunen ondokoek jasotzekoak izanen dituzten ordainsariak, bai eta lehendakari ohiei eta parlamentari ohiei dagozkien prestazioak ere; betiere, 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako irizpideei jarraikiz.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifak 2008ko ekitaldirako.

Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren harpidetzaren prezioa eta banakako aleena gaurkotzeko proposamena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren eta Bilkura Egunkariaren tarifa berriak oneste. Hauexek izanen dira 2008ko ekitaldian:

– Urteko harpidetza: 47,00 €

– Banakako aleak:

Aldizkari Ofiziala: 1,25 €

Bilkura Egunkaria: 1,40 €

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Comptos Ganberako 2008. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2007ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Comptos Ganberako lehendakariak 2008ko urtarrilaren 16an emandako Ebazpena, zeinaren bitartez onetsi baitziren, batetik, 2008rako plantilla organikoa eta, bestetik, erakunde horrek 2007ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda, hau ERABAKI DA:

1. Ebazpen hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Comptos Ganberako 2008. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2007ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dutenez, erakunde horren plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda urtero onetsi behar dira.

Hori horrela, Comptos Ganberako Langileen Batzordeari informazioa emanda eta hari entzun ondoren, lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako 2008. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla 1. eranskinean ageri da.

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioen zerrenda, 2007ko abenduaren 31n itxia, onestea. Zerrenda 2. eranskinean ageri da.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea behar diren ondorioak sor ditzan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2008. urterako

Lanpostua	Zenbat	Maila	Araubidea juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen askea	Esklusi-bitatea	Lanpostua	Mailaren osagarria	Berriazko osagarria
Lehendakariaren aholkularia	1		K		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		K		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	75		35
Auditorea	5	A	F			55	75		10
Legelaria	2	A	F			55	58		
Kazetari- itzultzailea	1	A	F	X		55	54		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	35		
Auditoretzako teknikari - kontu-hartzailea	1	B	F			55	45		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	45		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	45		
Administraria	1	C	F		X	55	53,50	12	
Administraria	5	C	F				41,68	12	
Administraria	1	C	F	X			41,68	12	
Mandataria	2	D	F				32	15	
GUZTIRA	39								

F: Funtzionarioa

K: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2007ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	5	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	5	Auditorea	Zerbitzu bereziak
Fuertes Pérez, José	A	7	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	5	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	4	Auditorea	Aktiboa
Sesma Masa, Francisco Javier	A	6	Auditorea	Aktiboa
Ezquerro Royo, José Luis	A	5	Legelaria	Aktiboa
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	3	Legelaria	Aktiboa
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	6	Informatikako sis. goi mailako tek.	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	3	Kazetari-itzultzailea	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	5	Auditoretzako teknikari - kontu-hartzailea	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Equiza Maquirriain, M ^a José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martcorena Chapa, Xavier Iñigo	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	1	Auditoretzako teknikaria*	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria*	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Lanpostu hutsa	B		Auditoretzako teknikaria	
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	5	Administraria	Aktiboa
Casado Redín, Cristina	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	4	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	6	Administraria*	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	5	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	4	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	5	Mandataria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	5	Mandataria	Aktiboa

* Euskara tituluarekin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	